

ttipi-ttapa

1992.eko Urtarrilak 9

77. zenbakia

dohain banatzen da





BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

ZABORTEGIRA HONDAKIN INDUSTRIALAK ZUZENEAN BOTATZEAREN ERREGULAZIOA

- 1.- Interesatuak, aurretik dagokion baimen eskaera eginen du, berau erabakitzeko Presidenteari ahalmena ematen zaiolarik.
- 2.- Ordutegia 9etatik 13ak arte egun guztietan izanen da, igandeak eta besta egunak ezik.
- 3.- Debekaturik geratzen dira zabor-uzte mota hauek: Lur eta obra-hondakinak, substantzi erradioaktiboak, hondakin lehargarriak, isurki sukoiak, eta edozein motatako isurkiak, hala nola hondakin toxiko eta arriskutsuak.
Salbuespen bezala, zabortegiaren garapen edo tratamendurako beharrezkoak diren lur eta obra-hondakinen botatzeak eginen dira.
- 4.- Zabor-uzte kontrolarako edo tasak kobratzeko dagokion albarana zabalduko da.
- 5.- 1992ko Urtarrilaren 1etik aurrera, hondakin hauek botatzeagatik, metro kubikoaren tasa 125 pezeta izango da.

LUR ETA OBRA-HONDAKINAK BOTATZEARI BURUZ

- 1.- Udal bakoitzak markatuko du bere herrian lur eta obra-hondakinak botatzeko lekua.
- 2.- Oraingoz, zabor-uzte hauengatik tasak ez dira kobratuko.

PRESIDENTEAK

non - zer

-
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/24 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 25 ERREPORTAIA:** "Baztan: turismo inizatibetan aintzindari" Udalak, 105 kanpalekuko Camping-a eta hotela martxan jarri asmo ditu berehala eta berriki, "Baztan, ibilbide berdea" izeneko gida argitaratu du
Joxemanuel Irigoien
-
- 28 KIROLAK:** "Nafarroako Herri Kirol Federazioaren egoitza inauguratuko zen Donezteben".
-
- 30 MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 4.850 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txopereña, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Patxi Petireña, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldia Argazkiak, Mattari, Fermin Altzuguren eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritzak.... **Inprimategia:** Jomisa (Irun)
ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea.....102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria.....226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

W Botikak

► Urtarrilaren 11-12an, Etxalar, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

► Urtarrilaren 19-19an Bera, Doneztebe eta F. Iturralde (Elizondo).

W Bestak

SAN ANTON

► ELIZONDO, Urtarrilaren 17an Plazan, bertsolariak eta txistulariak.

► LESAKA, Urtarrilaren 17an San Anton

auzoan, meza eta erromeria.

W Dantzaldiak

► ELIZONDO, urtarrilaren 12an IZADI taldearekin eta 19an TURRUTAK taldearekin

► LESAKA, urtarrilaren 12an ??? taldearekin eta 19an ARKAITZ taldearekin.

W Bertsoak

► LESAKA, Urtarrilaren 18an, gaueko 9etan, bertso afaria Arrano elkartean.

Bertsolariak: Xebastian Lizaso eta Xabier Amuriza. Txartelak salgai, Arrano ostatuan, 2.500 pztetan.

W Bota bertsoa



MANOLO AROZENA

Gaia:Urte Berria

Neurria: Hamarreko Haundia

Aspalditikan geunden guztiok sartu den urtearen zai ospakizun ta ekintza asko ba omen ditugu nonahi Sevillan dagon erakusketa Olinpiadak ere bai horren ederra izango denik ni ez naiz pentsatzeko gai lengoa pixkat hobetutzea ez nuke besterikan nahi.

Fabrikak itxi, baserrik hustu soinu latzak daude hemen berritu ez dena lurperatzeko urte gaixtoa hau omen martxa honetan zer janik ere laister ez dugu izanen Europatikan hobekuntzarik ez dator hori nabarmen sartu orduko gorrotatzen haut bukatu hadi lehen bait lehen

AGENDA

Erakusketak

ELIZONDO,

HERRI KIROL ARGAZKIAK

Urtarrilaren 3tik 24ra,
Arizkunenean, Carmelo
Alcalaren eskutik.

BERA

PINTURA

Juan Carlos Pikabea eta
Juan Manuel Pizziorien
eskutik, Kultur Etxean,
Urtarrilako asteburuetan
(ortziraletik igandera)
arratsaldeko 6etatik
8etara. Igandetan eguer-
ditan ere zabalik.

Gastronomia

AJOARRIEROA edo DRUNGULUA

Osagaiak

4 lagunendako:

1 kg. bakailu desmigatua, 8
piper berde edo gorri, 3 ti-
pula, 4 baratzen, 1 kg. to-
mate purea, 1/2 kg. lan-
gostino xurituak.

Bakailua 24 orduz utziko
dugu gezatzen. Piperrak eta



Palmas Matxiarenak emana
MATXIARENA Jatetxea - BERA

baratzuriak zartagi batetan
egin. Bertze ontzi batetan

tipula egiten jarriko dugu,
ezari ezarian.

Ondoren, bakailua botako
diogu eta egiten denean
tomatea erantsi.

Aparte, langostinoak
flanbeatuko ditugu konjak
pixka batekin, gero bakailu
gainean jarri eta azkenik
piperrak gehitu.

Baserriko feria



Lehiaketak

VI. GURE TXOKOA IPUIN SARIKETA ETA HAUR IPUINEN XX. BERA SARIKETA

Lanak urtarrilaren 12a
baino lehen zuzenbide
honetara biladiko dire:
Gure Txokoa, Kultur
Saila, 31780 BERA.

ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 ki-
lokoa): 5.300 pzta. **Zerri
gizena** (95-100): 159 pzta/
kilo **Urdamak**: 90 -110
pzta./kilo bizirik.

BEHIKIA

•Aretze gizenak:

Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....550
1.koa.....500
2.koa.....470

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal

Extra.....560
1.koa.....510
2.koa.....470
Oharra: Prezio hauek 300-
340 Kg. kanalean dauzka-
ten idixko eta 200-250 Kg.
dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 325
Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri
ona: 360 Pzta./Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 12.000
eta idixkoak 22.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 25.000
eta idixkoak 35.000 pzta

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza»

Aseguro
mota
guziak

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

❖ Zure ingurua klase guzitako
insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma,
kukuxu...) eta arratoi-xagutxoak garbitu
nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz!

Tfnoa: (948) 63 01 55 - BERA



Europako lehena
ostalaritzarako
garbiketa produktuetan

Tfnoa: (948) 63 01 55 BERA



Zine-kartelera

► DONEZTEBEKO ZINEA

URTARRILA

11-12an, "Colegas a la fuerza"
18-19an, "El Padrino III".

► LEITZAKOZINEA

URTARRILA

10ean:
Gaueko 10,30etan "Pretty Woman" (komedia).

12an:
4,30etan "Mira quien habla tambien" (komedia) eta 7,30etan "Pretty Woman".

17an:
10,30etan "Patfhynder (El dia del desfiladero)" (Akzioa).

18an:
4,30etan, "Tortugas Ninja" (Akzioa).

19an:
4,30etan "Tortugas Ninja" eta 7,30etan "Patfhynder (El dia del desfiladero)".

► U2

Achtung Baby

No iz bait erran genuen talde honek gehiena egin zuela, euren orain dela bi urteko "Rattle and Hum" entzun ondoren.

Ba ez; ez gara konparatzen hasiko "The Unforgettable Fire" edo "The Joshua Free" bezain ona

edo hobe den; hagitz desberdina eta ezin hobe iruditu zaigu. "Rattle & Hum"-en patinazoa barkatua dago lan honekin. "200 station" eta "The fly" diska hontako abestien hasieratik nabari da; ingenioa, doinu eta gusto ona U2k ongi nabarmentzen du bere estiloa eta abesti



hauetan gehienez ongi zabaldu eta gauzatzen du Bono abeslariaren dramatismo bokala. "So cruel" eta "Myserious ways" rapera hurbiltzen zaizkigu erritmo basikoaz. B.B King-en erritmoa ere ez da urruti.

► Mecano

Aidalai

Mecano ri buruz beti exageratu egiten da; lehen hiru diskak ezin txarragoak izan ziren, laugarrena ez zen hobe eta bosgarren honetan erritmoak salbatzen du Canoren

ahots ilupa eta Torrojaren oilandakeriak. Soinu konponketak ditu diska honek aipagarrienak. 50 musiko eta laguntzaileei esker, salsero, flamenko eta brasilenoei esker salbatzen da; egiten baldin bada. Musika standar



arina, teknopop adornatua. komertzialez

MARIANO



ZAGIT
Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA



Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA

LUR APAL MEKANOTERAPIA ZENTROA

BIZKARRA
ARTRITISA
ZAINAK
STRESA

Plaza Zaharra 7, Tfnoa:
637011 LESAKA

HONTAZ ETA HARTAZ

Euskaltzaindiaren hilabeteko Biltzar Nagusia Saran ospatu zen

Abendoaren 20 eta 21ean ospatu zen "Elizanburu urtea"ren karietarat Euskaltzaindiaren hilabeteko Biltzar Nagusia Sarako Herriko Etxean.

Bertan bildutakoetatik Aurelia Arkotxa, Manex Goienetxe, Xabier Elozegi, Jean Baptiste Orpustan, Aita Andiazabal, Piarres Charriton, Jean Haritschelhar eta Patri Urkizu izan ziren mintzatu zirenak, Elizanbururi buruzko hainbat aipamen interesgarri ere entzun ahal izan zirelarik.



Arkupeak Elkarteak urteko azken besta ospatu zuen abenduaren 27an Almadotzen

Bertze urtetan izan ohi den antzeko egitaraua zuten aurtengoan ere: Meza Nagusia Almadotzen, bazkariak Almadotz, Doneztebe eta Arantzan eta eguna bukatzeko dantzaldia Bordatxon.

Halere, aurtengoan bazegoen berezitasunik; eskualde honetan lanean ari garen komunikabide eta kazetarioi oroigarria eta lore xorta eskeini bait ziguten.

TTIPI-TTAPARI eskeinitakoan honelaxe dio: "Arkupeak euskararen alde egiten ari duen lana TTIPI-TTAPARI eskertzen dio". Eskerrik asko Arkupeak eta segi aunitz urtez umore horretan.



INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



JON GORTARI U. EZ-JAKINA EDO GEZURTIA

Berako herrian gertatzen denaz ideiarik ez baduzu eta horren gain idazten baduzu ez jakin hagitx ausartia zara. Gertatzen dena eza gutzen baduzu eta egia ez erran, gezurtia zara.

Beran, HB eta EAren udal taldeek Jose Luis Urtxegi zinegotzi "independiente"aren hirigintz proposamen baten aurka eman zuten botoa. Egia da Urtxegiren proposamenaren aurkako txostena EAKo Jose Luis Semper-ek (eta ez EAK alderdi bezala) aurkeztu zuela.

Onartezina da EAren nabarmenkeriaz Jon Gortarik gauzak ongi ez ikas-tea eta jakinez ausarta batetik propaganda egitea, edo okerrago

dena, gezurretan.

Ez dut ulertzen Mugaireko pertsona bat inoiz ikusi ez du-dana Berako osoko bilkuran gure herria-rekin sartzea gure barruko aferak zu-zentzen, alderdi ze-hatz baten propagan-da egiteko ez bada.



Josu Goia Etxeberría
Berako HBko kontzejala

ASKATASUNA

Cervantes-entzat askatasuna hain preziatutako doaina da biziarekin pareki-detzen duela.

Hala ere, adimen kontrako kulturgabe-keriapeko mende triste eta luzeetan zehar, juduek eta mairuek ezin zuten bere fedean bizi, ber-te herrialdetara at-zerriratzera behar-tuak izanez, Inkisi-

zioak hatzematea ez bazuten nahi; ez iza-nez, beraz, beren er-ligioak praktikatzeko askatasunik.

Askatasuna Fran-tzes Iraultzan alda-rrikatu zen, Argien Mende liluragarrian, Berdintasuna eta Anaitasunarekin ba-tera, giza zoriona lor-tu asmoz. Gaur egun, aparteko hastapen-hauek ez daude ind-arrean, ezta Frantzia berberean ere.

Bertzalde Espai-nian bezala Frantzia-n ere, ohitura zentra-listako estatuak, eus-kaldunek eta katalui-narrek Askatasune-rako daukaten es-kubidea onartzen ez duten konstituzioak aldarrikatu dituzte.

Eta hiritarren norbanakako askata-sunei dagokionez Corcuera Legea sor-tu da onartua izanez; Pinochetek berak al-darrika zezakeen lege bat eta Francoren ga-

raietan indarrean ze-goena. Nola justifika daiteke Kontituzioan, espainiarrak hain ha-rro dauden horretan, bizilekuarenukiezint-asuna adierazten duena, eta aipatutako lege horren ondorioz polizia noiz eta nahi duena sardaithekeela?

Dena den Madril-go Gobernuak dau-kan armarik garran-tzitsuena TVE da. TVEk, Euskal He-rriarekiko aferetan batez ere gertaerak gorde, gezurak erran eta nahasi egiten ditu, babesgabe dagoen teleikuslearengan eritzi bat sortuz, be-rehalako ihardespe-nerako gaitasunik gabe.

Hiritarrengan ko-munikabideen sar-tzea dela eta, eritzi askatasuna hain era-gina dagoenez gero, hagitx hauskor dela deritzot.

Antton Saraguetá - Bera

PATXIK TOMAS-I

Nik, Patxik, ekai-naren 9an egina eta irailaren 9an etorria TTPI-TTAPAN, 61 mi-nututan egin nuen Mendaurreko joan-etorria hiru lekuko-ren aitzinean: Ci-priano Goizueta, Teodoro eta Angel M^a Pikabea, beren konformidadea emanez. Horregatik, hortik aintzinerako Tomas-en demostra-tzeko desafioak eta gainerako kontuak, sobran daude. Nere testigoen fineziarekin berriro erraten dut 61 minututan egin nue-la, eta Tomasek ez badu sinesten bere arazoa da, ni pozik bainago.

Hemendik aintzi-nera nerekin zerbait nahi badu etor dadila neregana eta ez TTPI-TTAPARA.

Patxi Ordoki - Arantza



EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92
BERA

SAROBÉ okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



BERA ☎ 631059

- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

Urruñako Kultur Astean egon dira beratarrak

Aurtengo honetan, euskal emakumea hartu da gaitzat

ROMAN HARRIBILAGA

Bi herrien arteko harremanak direla eta, Berako Batzordea osatzen duten zenbait kidetako taldea joan den abenduaren 20ean Urruñan egon zen, bertako Kultur Astearen zabal-tzearen kariatz Bertoli Elkarteak egoitzan ospatu-tako afarian.

Seigarren aldia da Urruñan egiten dela Kultur Astea «Hazia» Kultur elkarteak antolatua. Aur-reko urteetan bezala Eus-kal Herriko esparruko gai monografikoari ekin zaio, Euskal emakumea hartuz oraingoan. Aldiberean, afarian, datorren urtean landuko den gaia ere hau-tatu zen, lurra, etxea eta Amerika artean. Gehiengo zabalez, lehenengo gaia izan zen berezia.



Berako Batzordeko kideak afarian hartu zuten parte

Egintza programa

Kultur As-tearen egi-t a r a u a k euskal emakumearen gaia-rekin loturik dauden egin-tzak bildu ditu, hala nola, Akelarre filmea eta bideo baten proiektzioak, bertso-lariak, mahaingurua, liburu salmenta, erakusketa eta kantaldia bukaera emateko abenduaren 29an.

Paper birziklatua Herriko Etxean

Aurrerantzean Herriko Etxeko barneko posta trukean paper birziklatua erabiltzea eta ekimen honetara Bortziriak, Male-rreka eta Baztango udal eta mankomunitateei elkar daitezela eskatzea erabaki du ahobatez Berako Udal-batzak osoko bilkuran.

Proposamena alkatea-rena izan da, botatzen di-ren zuhaitz kopurua ahalik eta ttikien izan dadin. Bere aldetik, Ingurugiroa udal Batzordekoa den Josu Goia (HB) zinegotzia paper bir-zilatua kontsumoarekin ados agertu da, baina "jo-kaera zabalagoa izan be-har duela" erranez, eta pa-per eta kartoi bilketa hau-takorrerako proiektua az-tertzen ari dela.

Leku berria ttipi - ttapa aldizkariarentzat

Posta bulego bezala erabiltzen zen lekuan kokatuko da *ttipi - ttapa* aldizkariaren erredakzioa aurrerantzean.

Udalak behin behinean utziko dio lekua, beha-rrezko konponketak gau-zatu eta gero.

B RADIO BIDASOA



expert

RADIO BIDASOAk errex jartzen dizkizu gauzak:

- * Zure elektrogailua, TB, bideoa, etab, aukeratzeko laguntzen zaitugu.
- * Dohainik instalatu eta erabiltzen erakutsiko dizuegu.
- * 3 urtetarako garantia
- * Suterako eta lapurretaren aurkako aseguru.
- * 36 hilabete bitarte dituzu ordaintzeko.

Kanttonberri 1, Tfnoa: 630377 - BERA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

MANUEL LANTZ

KONTABILITATEA ETA AHOLKULARITZA FISKALA

Errenta deklarazioak, BEZ edo IVA deklarazioak, Kontabilitateak, e.a.

Eztegara 14, 1. - Tfnoa.: 63 11 08 - BERA

LESAKA

Horma eta hotzez ailegatu zaigu 1992a

Eguberriko besta ekitaldiak bukatu ondoren, egunerokoari lotu behar

AITOR AROZENA

Hotzez joan zitzaigun 1991a eta hotzez iritsi zaigu "zorioneko" 92a. Gauez horma eta eguneko eguzkiarekin ezin berotu... Nahiko lan.

Hala ere, hotza kentzeko besta eta dantza bezelakorik ez omen dago eta horretan saiatu gera, hemen ere. Ez gazteak bakarrik, izan ere **San Fermin** Jubilatu elkarteak, ekitaldiz betetako urteari agur errateko afaria izan zuten Kasinon, ondoren dantzaldia Beti Jai taldearekin. Gazteak, berriz, ongi etorrria eman zioten urte berriari hilaren 5ean, **66, 67 eta 68ko** kintoak bilduz afari batean.

Besta hauetan etxean egon ezin dutenei gogoratzeko ere astia izan zen, eta autobusa ateri zen Abenduaren 27ko gau hotzean **Herrera** aldera, presoei



Tanturumairuko ikasle talde honek, Donostiako Sto. Tomas lizeoak antolatzen duen "M^a Karmen Alzueta" sarian bigarren postua lortu zuten diseinaren gaian, Lesaka euria egiten duenean tapatuko lukeen "estalki automatiko" baten proiektuarekin. 25.000 pzta, lore sorta eta Ruiz de Eguinoren lamina jaso zuten inbentore gazteok.

elkartasuna adierazteko asmoz.

Kontzertuak ere ez dira faltatu, eta **abesbatzak** abenduaren 29an izan zuen berea, arrakastatsua... **Urte zahar** gauean ere ibili ziren karrikaz karrika, aintzineko doinuak ("Diostesalbe" bertzeak bertze) berreskuratuz.

Errege kabalgata ere izan genuen aurten, eta **jaiotza biziduna** plazan.

Hala ere, denak ez zuten hain ongi hasi urte berria, **garraiolarien huelga** lekuko... Lesakako kamiolariak, guztiz geldi egon ziren urteko lehen astean, beraien eskubideak aldarrikatuz.

W ttipi-flash

□ **Jose Luis Larralde** I. Memoriala antolatu zuen Beti Gazte Elkartek. Juvenil mailako futbolarien artean jokaturako torneo honetan, etxeokoin batera, Irundarra, Behobia eta Miren Bihotza taldeek parte hartu zuten. Finala, Beti Gazte eta Irundarra taldeen artean jokatu zuten hilaren 4ean.

□ **Bertso afaria** burutuko da Arrano elkartearen hilaren 18an. Bertsolariak, Xebastian Lizaso eta Xabier Amuriza izanen dira. Afarirako txartelak, salgai daude, ostatu berean 2.500 pezetan truk.

□ **Izotzaldea** auzora ura eramane eta banatzeko lehen lanak, 19.486.057 pztetan eginen ditu «Construcciones Gazmendi»k.

□ **M^a Carmen Mikeok** eginen du Udaletxearen garbiketa aurten ere.

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA


Lagunekin elkartzeko toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

IRUBIDE

OSTATUA
ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA



GOIZUETA
KIROLAK

Kirolak
Mendirako artikuluak

Beheko Plaza 10 LESAKA



★ KIXKUR ★
ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

XATURETXEA
FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

Haurrek irratsaioak burutu dituzte

Bertzalde, zaborrak oraindik bide bazterretan ikusten dira

PELLO APEZETXEA

Abenduaren 10etik 13ra eskolan lan berezia zuten programatua, goizeko 11,30etatik 13etara herriko bertze bizilagunei berriak eta entretenigarriak eskeintzen aritu bait ziren irratis. Entzuleek ere parte hartzeko bidea izan zuten, baita hartu ere, presentatutako asmakizunei buruzko erantzunak telefonoz emanez. Xorroxin Irratia da eginbidea eman duena, bere aparailuak Landagain Eskolan eraikiz. Prolema- ren bat aipatzekotan, zenbait etxetan entzuteko zailtasunak izan dituztela aipatuko genuke.

Zaborrak bide bazterrean

Zabor ontziak paratu zirela urtea bete denean, oraindik ere ikus daitezke argazkian ageri diren zaborrak, bide bazterrean



Herriko neska mutilak Xorroxin Irratitik aritu ziren



Ohiturak aldatzea ez da errexa

bota berriak. Gauzak erosi eta paratu agudo egiten dira, ez hain erraz ohiturak aldatu.

□ **Joan berri** den 1991.ean hamar herritar hil zaizkigu, eta jaiotakoak bortz izan dira.

□ **Negu honetako plantazioak** egiteko Udalak antolatutako lehiaketa edo konkurtsoan, eskeintza bakarra jaso da Udaltxean.

□ **Antsolokuetan** zurgindegia berria irekitzeko

baimen guztiak emanak ditu Angel Mari Iribarrenek.

□ **Iraileko euritearen** kalteak direla ta Udalak laguntza eskatu zion Nafarroako Gobernuari, honak xehetasunak nahi dituela erantzunez. Zerbaiten esperantza denez, breaztatzeko dauden baserrietarako bideak gogoratuz igorri dio orain izkribua Udalak.

□ **Igerilekuak** eraikitzeko dirulaguntzaren es-

kaera berritu egin du Udalak 1992. urterako.

□ **Su itzaltzeko** hodi edo mangera berriak erosi-ko ditu Udalak, 120 metro denetara. Beraietatik 60, karrikak garbitzeko erabiliko dira, bertze 60ak suteak itzaltzeko Elkartearen esku egonen direlarik.

□ **Bortzirietako** zabortegirako lanak irailean bukatu ziren, 85 milioi izan delarik kostua, aurrekontuetakoa baino hiru milioi gehiago.

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

KOXXKONTA



Sagardotegia
Erretegia

Ezkontza,
bataio, bileratarako
leku egokia
(200 pertsona)

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

«USOA»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

ARRATZUBI
ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

IGANTZI

Abesbatzaren saioa arrakastatsua izan zen

Bertzalde, abenduko Udal batzarrean ez ziren Arau Subsidiarioak onartu

OSKAR TXOPERENA

Abesbatzakoek beurek ez pentsatutako arrakasta lortu zuten lehengo egunean elizan emandako kantaldian. Eliza bete bete zegoen lehenengo aldiz kontzertu bat ematen zuen herriko abesbatza aditzeko. Noski, lehenago ere adituak zituzten mezatan batez ere, baina ez gisa honetara. Zortzi kanta eskeini zituzten, guztira ordu erdi eskaxa iraun zuen saioan. Bukatzeko, Nafarroako kanta txapelketan parte hartu duen Unanu taldeak bere kanta ere eskeini zuen. Emanaldia motzegia iruditu zitzaion jendeari eta ziur gaude maiztasun haundiagoarekin eskeiniko dizkigutela beren emaitzak hemendik aintzinerara.

Ez du preziskiri, ez dakit nongo jendea ekarri beharrik gauza politik egin eta entzuteko. Txalo haundi



Klase guztietako Olentzero borts talde bildu ziren Igantzin, eguraldi onak lagunduta Bertze urte batez bete da ohitura.

bat.

Abenduko Udal Batzarrea

Abenduan egindako bilera udalak ukitutako punturik aipagarriena Arau Subsidiarioena izan zen. Aipagarria erraten dugu, behin behineko onarpena aintzinerara atera ez zelako. Zenbait erreklamazio ere paratuak baziren aintzinetik. Gehienak, lurra zona

urbanoan sartzeko ziren. Guzti hauek onartuak izan ziren, baina bazen bat, Igancio Telletxea kontratistak egindakoa eta honengatik, hain xuxen, ezin izan zen onartu gainera guztia. Honek pentsatua zuen lehenagotik, Sarrolako Laurek bat eta orain egindako etxearan artean etxe bat egitea. Orain eskatzen duena da hori onar-

tzea eta Udala ez omen dago prest, lekuri ez dagoelako. Orain irtenbide bat bilatu beharko diote guztia aintzinerara eramateko.

Olentzerotan borts talde

Aintzineko urtean baino aunitzez eguraldi hobez ibili ziren aurtengo olentzero taldeak. Ohi den bezala, bost taldek hartu zuten parte.

Klase guztietako olentzeroak ikusi ahal izan ginen, gehien bat bizidunak. Batzuk gainera, haurrak egindakoak zirela kontutan harturik, hagitxerik merito haundikoak. Bertze urte batez bete da ohitura.

Bertze "amerikanoa"

Lehengoa bi igantziar bagenituen Ameriketatik etorriak oraingoan ere bertze bat aipatu behar. Martintxo Iruienbordakoa.

BORTZIRI

Itzea 4, behea - BERA
Tfnoa: 63 10 91

- * Asistentzia teknikoaren zerbitzua
- * TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630529 - BERA

ZALAIN JATETXEA


EGUNEKO MENUA ETA KARTA

ZALAIN AUZOA, TFNOA: 63 11 06

BERA

91 ongi bukatu dugu, ea hola segitzen dugun 92an

Besta eta ospakizun ugari Eguberri hauetan



Ttikienak «Franziska» lana antzestu zuten


JON LARRETxea

Garai honetan ohi den bezala, aurten ere ospakizun dexente izan dugu Eguberrietan.

Eguberri bezperan Olentzero herrian zehar eta eguberri egunean olentzero kantuen lehiaketa eta olentzero erretzea. 29an antzerki emanaldiak eskolako haurren eskutik. Emanaldi guztiak politak izan baziren ere, aipatze-

koa da 7. eta 8. mailakoek egin zutena; bi baserriren arteko kontu eta harremanak, akordeoi soinu eta bertsoz osatuak.

Urte zahar eguna ere bazegoen non ospatu. Zaharrak euren egoitza berrian antolatu zuten besta. Joaquin Madariaga akordeoilaria eta Lazkao Txiki eta Manolo Arozena bertsolariekin. Aterpen berriz, Gregorio Mitxelena akordeoiarekin gaua alaitzeko eta baita ere Burlada, Pri-



Herri kirol Federazioak omenaldia eskeini zion Panttaleoni

mitivo eta Pabloenean egon zen giro goxorik dastatu nahi zuenarentzat.

Besta hauek bukatzeko, oraindik lerro hauek idazteko orduan gertatzekoak badira ere, Kabalgata dugu Errege bezperan eta Mendi mutilen besta Errege egunean, Donato Larretxea aizkolaria, Patziku Antsuneko - bordako harrija-sotzailea eta Xebastian Lizaso eta Euskitze bertsolariekin.

Panttaleoni omenaldia

Abenduaren 29an Donetzteben, Nafarroako Herri Kirol Federazioak omenaldia eskeini zion Panttaleoni, urtetan zehar herri kiroletan egin duen lana eskertu asmoz. Pantaleon, Euskal Herriko txapelduna izan zen arpa-nean. Oraindik ere gaur egun, nahiz eta urtetan sartua egon arpanan sasoiaz jarraitzen du.

EROSLE

Tfnoa: 63 72 64 - LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago



S. Semper

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERAn, 631238 Tfnoan, Agerra Industrialdean



ESTETIKA SOLARIUM

GIMNASILEKUA

Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - BERA

SARA

Saratarrak garaile "Herriko Plaza" programan

Bertzalde, Euskaltzaindiaren Biltzar Nagusia burutu zen Abendoaren 20 eta 21ean

OLHAIN ELKARTEA

Urtarrilan 2an ikusi ahal izan duzue ETBn "Herriko plaza" emankizuna. Sara aritu zen Askainen aurka. Gure herriko ordezkariak zuten beraz garraitu 860 pundurekin, Azkaindarrek 825 puntu markatu zituztelarik. Hauxek ditugu Sarako herriaren izenean izan diren partaideak: Pertsonai xelebrea, Paul Dutournier; Soka tira, Marie Jeanne Elizalde, Veronique Iturria, Beñat Etchegaray, J. Claude Azpiroz; arpanlariak, Marie Michele eta B. Etchegaray; txingan, Martin Goyenette; harri jasotzen, Michel Elizalde; kulturari, Solange Mariluz, J.C. Azpiroz; izkutuko aproba,



Emitza politikak lortu dituzte Sarako pilotariek

Marie Jeanne Elizalde, J.C. Azpiroz eta sukaldaritza J.C. Azpiroz.

Euskaltzaindiaren urratsetan

Abendoaren 20 eta 21ean ospatu zen "Elizanburu urtearen" karietarat Euskaltzaindiaren hilabete Biltzar Nagusia.

Entzun ahal izan ditugu Elizanbururi buruzko aipamen interesgarri asko. Huna hemen mintzatu diren jendeen zerrenda larria:

Aurelia Arkotxa, Manex Goienetxe, Xabier Elosegi, Jean Baptiste Orpustan, Aita Andiazabal, Piarres Charriton, Jean

Haritschelhar eta Patri Urkizu. Aita Barandiaren omenez ere meza izan zen. Bertzalde, Manex Bergarak erdietsi du 3.000 libe-rako saria Euskaltzaindiaren ganik. Erdia eskaini du Xalbador ikastegiari eta bertze erdia, presoen aldeko elkar-teeri.

Sara - Santa Maria Poghju

Urtarrilaren 11an, larunbatarekin, arratseko 9etan ospatu beharra da birazkatzeaz arduratzen den elkar-tearen bilkura.

□ **Eguberri** kari jakin dugu Pello Etxebeste askatua izan dela eta gutartean dugula 7 hilabete preso pasatu ondoren. Biho-tzez ongi etorria!

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezau-tzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

HEZETASUNA... komertzio, biltegi edo al-mazen, etxebizitza, garaje etabarretan...

DANTHERM lehorgailu berriei esker, hezetasuna kontrolatu eta kentzea garantizatua dago.

ETXE BERRIETAN

DANTHERM lehorgailuen bitartez, etxe berrietako paretak, zolak eta tetxoen lehortze prozesua nabarmenki azkartzen da, gero, pintatu, parketa jarri edota bertzelakoak egin ahal izateko.

Salmenta eta alogera
Joaquin Beunza 10, Tfnoa: 13 15 27

IRUÑA

Paleta txapelketaren azken partiduak

Urteberria urtaratsekin hasi zen

PATXI PETRIRENA

Dagoeneko jokatuak izanen dira Paleta Txapelketako azken partiduak, baina emaitzak hurrengo alean atera beharko ditugu. Hirugarren eta laugarren tokirako bikote hauek zeuden: Jaen-Melo (Elizondo eta Mugairekoak) eta Estanga-Elizalde (Eratsun). Lehenbiziko eta bigarrenenerako Larralde-Pierola (Urdazubi eta Almandoz) eta Maritxalar-Ibarra (Lesaka-Sunbilla).

Gabon-zahar

Urteroko ohiturari jarraituz, Abenduaren 25eko gauan etxez etxe ibili ziren herriko gazteak kopla kantari eta eskean. Aspaldiko



Argazkia: PATXI

Euskaltzaindiak konfirmatu egin du «Sunbilla» izena

ohitura dugu hau eta dudarik ez dago ongi hartuak izaten direla kantariak etxeetan. Urteberri egunean ere, kasu honetan neska-mutikoak, ibiltzen

dira herrian eta baserrietan aspaldiko kantak abestuz. Aurten, gainera, aintzineko urtetan inor ailegatu ez zen zenbait baserritara ere joan dira eta hori

berri pozgarria da.

Sunbilla izena

Euskaltzaindiak eman du erantzuna egin zitzaion kontsultari, baina izena nola idatzi behar den bertzerik ez du argitu, hau da, Sunbilla dela euskal izena eta ez Sumbilla. Horretaz aparte, izenaren erranahiaz ez du argibide berririk ematen.

ttipi-ttapa Urtekaria

TTIPI-TTAPA 91 URTEKARIA salgai dago, urteko balantzea eta bertze gauza interesgarriekin. Hau ez da dohainik izanen baizik 1000 pezetatan, nahi duenak erosteko. Bertzeak lehen bezala segituko du dohainik.

AMETS LIBURUAK

Liburu bildumen Banatzailea

Ikastola, eskola, elkarte, kultur etxeetako liburutegiak osatzeko behar diren bilduma guziak, prezio bereziekin

631267 tfnoan harremanetan jarri



HAUR JANTZIAK
OINETAKOAK
ETXERAKO ZAPATILAK
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA



KIROLAK ZELA
Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA

ALICIA
JANARIDENDA

Foruen Plaza 6, Tfnoa: 630799
BERA

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA - LABAIEN

BOAN TAILERRA

CITROEN Banatzailea

KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

DONEZTEBE

“Ikaragarria izan da!!”

Martxeli Lizaso eta bere alabak, M^a Eugenia eta Teresa istripuz hil ziren

TXEMA ALDABE

Jendeak gehien erabili zituen hitz hauek egokiak dira abenduaren 27an gertatutakoaren berri adierazteko. Martxeli eta bere alabak Teresa eta M^a Eugenia Iruñeatik erosketak egitetik heldu zirela, hil egin ziren kamioi baten kontra jo ondoren.

Gertaera honek herrian eta inguru osoan sortu duen nahigabea izugarria izan da, hirurak hagitz ezagunak eta atseginak bait ziren.

Martxeli Martxelik
TTIPI-TTAPAREN egunero El-
laguntzaile gorriaga,
Ituren, Sal-

dias, Eratsun eta Ezkurrara eramaten zuen korreoa, eta bidaia aprobetxatuz, borondate osoz, TTIPI-TTAPA aldizkaria ere debalde banatzen zuen herri hauetan.

Gure doluminarik sentituenak bere senitarteko eta ezagunei.

**Ezkurra II.
memoriala
arrakastatsu**

Doneztebeko pilotalekua bete egin zen joan den abenduaren 22an Mendaurren Esku-pilota Eskolak antolatutako II. Memorialean. Doneztebek esku-pilotan izan duen pilotari hobere-nari, Ezkurrari alegia, es-keinutako omenaldian, sei



Martxeli Lizaso Eneterreaga



M^a Eugenia Apezetxea Lizaso



Teresa Apezetxea Lizaso



Retegi eta Maiz egon ziren sariak banatzen. Argazkian, Leitza eta Apeztegia beren sariak eskuetan dituztela eta beraiekin Ezkurra zenaren semea.

maila ezberdinetako parti-duak jokatu ziren. Preben-jamintan, Arteta-Altzugaraiak (Baztan) 16, Andia-rena-Andresena (Legasa) 4; Benjaminetan, Remen-tegi-Ibargaraik (Baztan) 16, Goienetxe-Otero (Baztan) 3; alebinetan, Al-tzugarai-Iribarren (Baztan) 5, Etxenike-Garate (Baztan) 18; Infantiletan, Al-tzuarde-Otxandorenak 5

(Baztan), Atxa-Jauregik (Baztan) 18; jubeniletan Leitza-Apeztegia (Aurtiz) 22, Saragueta (Bera)-Agesta (Arantza) 10 eta helduetan, Martin-Belarra (Doneztebe) 14, Ordoki (Doneztebe)-Mindegia (Aurtiz) 22.

Bi gonbidatu berezi ere izan ziren sariak ematen, Julian Retegi eta Antton Maiz pilotari profesiona-

lak. Mendaurren Esku-pilota Eskolak dena den, bere eguneroko lanarekin segituko du eta eskertu nahi ditu Doneztebeko Udalak, CAN, Caja Rural eta bereziki, Maiz eta Retegi.

Euskara Zerbitzua

Orainarte Malerreka Euskara Zerbitzuko teknikaria genuen Ines Gerekak bere lanpostua utzi egin du berriki. Hutsunea betetzeko, Oizko Udalak lanpostu deialdia atera behar du berriro.

**Herri Kirol
Federazioak
bulego berria**

Abenduaren 29an inauguratu zen Herriko Etxe zaharrean. Lehenago, 12ak aldera, orainarteko balantzea eta urte honetarako asmoak agertu zituen Federazioak. Pantaleon Errandonea, arpanlari arantzarrari omenaldia egiteko ere aprobetxatu zen eguna.

Olentzero bikaina aurtengoa

Bertzalde, Aurtizko pilotalekuan jokatzeko, orduko, hainbat ordaindu beharko da

IBAN ISASI

Iaz etorri ez bazen ere, aurtin Olentzeroa gure karrikak betetzera etorri zen gabon gauean. Joaldunek eta gainerako komitibakoek osatzen zuten olentzero jatorrarekin batera aurtengoa. Haurrak ere ez zuten hutsegin, eta bertzeekin batera, astokarro baten gainean zoaien olentzeroari abestu zioten.


Beraz, ale honetarako lortu ez badugu ere, zaude-te ziur hurrengorako

argi kiren bat lortuko dugula, zeinen polita izan zen ikus dezazuen.

Aurtizko pilotalekua

Pilotalekuaren argiak sortzen zuen gasto haundiarengatik, Udalak kandidatea ezarri zion argi-giltzari. Ondoren, azken udal batzarrean hain zuzen ere, erabaki zen hainbat pezeta orduko ordaintzeko pilotaren partiduren bat aritu behar zuenak.

Bertzalde, azken aldi



honetan mendiko zuhaitz ugari mozten ari omen dira

etxeko egur bezala inolako permisurik gabe.

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa.: 45 04 91

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

Mari Cruz

LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

Beatriz

ILEAPAINDEGIA

San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

- ❖ Ileapaindegirako ordua eskatu
- ❖ Solarium-a
- ❖ kalitateko perfumeak
- ❖ Bitxitegi fina

Beatriz Apaindegia

Espezializatutako zentru akreditatua

Larruazalaren garbiketa, aurpegi eta gorputz tratamenduak, depilazioak, masaiak, sauna eta solarium.
Zatoz eta "Importancia de tu imagen" liburua oparituko dizugu

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO



Merkealdiak

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE

ZUBIETA

Urtearen bukaera izateko batere gaizki ez dagoela esanen nuke, ezkontza eta txapela gauzatu bait dira

JUAINAS

Ezkontza aipatu nuen, lehen ere, aspaldiko partez bi zubietar elkar ezkonduko zirela komentatu nuen hartan. Orain burutu zuten, abenduaren 21ean, altxaferuk, konbite eta tradizioak agintzen duen bezala. Apeza, Sagrario ezkonberriaren osaba izan zuten, apeza eta bideo-kamaraman. Lehen, garai batean, Zubietako parrokoa izan zela aditu dut, eta orduan bertako eliza eta elizako pulpitoa hagitz animatua egoten omen zela entzutea tokatu zait ere, gizonen koroa barne.

Utz dezagun istorio zaharrak eta etorkizunari begira jar gaitezen! Hurrengo ezkontza, noizko? TTPI - TTAPA zaharretan ezkontz-agentzi bat eskatzen genuen eta, berrietan, Union Contacts Loisirs, zure giza



Bi herritarren arteko ezkontza ez da noiznahi gertatzen Zubietan. Azkena, abenduaren 21ean izan genuen. Hurrengoa noiz?




harremanetarako agentzia anunziatzen da, bihotz baten barruko UCL siglak direla eta. Egia balitz, eta agentziaren bitartez batzuk "zoriontasuna" lortuko balute, ospatzeko laguntza harrapatuko zuten Zubietan, oraingoan ere bihar-moneko oilarraren kukurukua atzendua zegoelarik etxeko atea topatu ezinik bait zebiltzan horiena,

alegia. Ez baitira aspertzen!

Batetik ateri gabe, beste prestatzen ari! Eta urteari harrera hobe zina emateko, errege bezperako afaria egin da Errandonean eta Lizaso bertsolaria ere bertan izan zen.

Jate eta parranda seguitua, aposturen bat sortuko da bertan, dudarik ez! Eta kirol formala? Hain gustokoa genuen—nere kasuan

ikusteko bakarrik—herri kirola? Mundu guztiak daki Zubietan indarra soberan dagoela, faltan dugu entrenatzeko gogo eta seriotasuna. Ikusi bestela Yoanamariko Jose Antoniok erakutsitakoa. Hark ekarri du herrian behar genuen "txapela". Zorionak zuri, guztiei eta **urte berri on!**



ERAKUSKETA:
BEREAU ETXEA
LESAKA NAFARROA
Telf: (948) 637266

BORTZIRI

«UNSION ANAIK»

SUKALDERAKO ALTZARIAK



UNION CONTACTS LOISIRS

ZURE GIZA HARREMANETARAKO AGENTZIA

TFNOA: (943) 42 64 11

Okendo 2, 20004 - DONOSTIA

♥ Bakarrik zaude?
♥ Zergatik?
♥ Ez duzu inor ezagutzen zurekin ezkontzeko?
♥ Familia bat egin nahi baduzu...

♦ Gure laguntzarekin nahi duzuna lortuko duzu.
♦ Kezkarik gabe etorri guregana edo deitu.
♦ UCLrekin zoriontasuna lortuko duzu! Animatu!

Joan dira Erregeak ere... hel diezaiogun egunerokoari

Lan konbenio berria, Sarrion

ANTTON ERKIZIA

Leitzeko Papeleran sortzen diren notizi guztiek badu eraginik herrian.



ANTTON

Eguberri bezperako egunetan, lan-konbenio berria ontzat ematen zutela langileek botazioz, eta beraz, konbenio berria bada-gola izan zen notizia. Ona. Denak ez dira lan konbenio hortan sartzen, goi karguak eta nagusiak beste hitzarmen bat bait dute.

Baina hala eta guztiz, 560 bat langile hartzen ditu konbenio honek.

- Datozen bi urtetarako egina.

- 1.992 urtean: biziaren igoera (IPC) + 1 eta zortzi ordu gutxiago lanean.

- 1.993 urtean: biziaren igoera (IPC) + 1,5.

Bost kirol desberdinen konbinaketa eginaz, iniziatiba berri bati ekin dio Aurrera elkarteak. Ideia erakargarria dirudi. Esanen dizuet nola den:

10 neska mutilez osatutako taldeak ariko dira (dagoeneko 18 taldek emana dute izena).

Hamarreko taldeak bost kirol desberdin jokatu beharko ditu: pilota eskuz, palaz, saskibaloia, futbito

eta frontenis. Talde bakoitzak bos kirola mota, katean.

Hasia ez bada ere, hasiteko puntu egonen da txapelketa konbinatu hau.

Urte osoan, baina negu partean bereziki Aurrerak kirol saio franko antolatzen du, erreklamu berriak ezarri, jendea mugiarazteko.

Truk txapelketa ere hastear dago, hontaz gain.

Ekonomatoa aldatu dute lekuz

Urte berritik, fabrikako ekonomato denda lekuz aldatu dute.

Fabrikara bertara eramanez, Colowal izenaz

ezagutzen den tokira, bide bazterrean, herritik irteeraren ezkerretara. Han ere, lehengo ordutegi bera izanen du.



ANTTON Argazkiak



Ongi, oso ongi leitzarrak Naparroako Kantu txapelketan. Aipatzekoa, «Izarra» bikoteak (Maite Mariñelarena eta Tere Susperregik) egindako marka: lehen sariaren irabazle binakakoan, sari berezia kanta melodia berriari (beraiek sortua) eta beste sari berezi bat kanta berriaren letrarengatik (beraiek ezarritakoa). Ainhua Bigerak ere, bakarlarietan Euskal Herriko txapelketarako txartela lortu zuen. Leitze haundi... bazehok gaia, hi!

GOIZUETA

Ehun etxetik gora hutsak daude gaur egun herrian

Hala ere, etxebizitzarena da gaur egun arazorik larriena

ESTEBAN AROZENA

Nafarroako Gobernua-ren estadistika atalak dioenez, gaur egun gure herrian 385 etxebizitza dira, haue-tatik 107an inor bizi ez delarik. Okupatuak daude-nak 257 dira, bigarren mailakoak 15, eta beste era batekoak 6.

Datu hauek behin behi-nekoak direnez okerren bat izan omen dezakete, bai-nan zentsu definitiboa ia berdina izango delakoan daude estadistikakoak.

□ **Herriko** dantzariak, pilotariak eta trikitilariak omendu zituen Umore Onak abenduaren 28an elkarte honek antolatu zuen festa zoragarri batean.



Egoera txarrean aurkitzen dira Goizuetako etxe asko

Umore Onaren egoitza to-petaraino bete zuten 3 tal-de hauekako partaideak afaltzera bildu zirenean.

□ **Joxe Julian Salabe-rria** 24 urteko pilotari eza-gunarengana jo beharko dugu hemendik aurrera di-

ruz behartzen baldin baga-ra, berak beteko bait du laister Nafarroako Aurrez-ki Kutxak Goizuetan duen sukurtsaleko postua.

□ **Olentzeroari** ongi etorri ezin hobea eman zi-tzaion herrian. Amnistia-



Joxe Julian Salaberria, CANeko langile berria

ren aldekoa izan zen arrakastatsuen eta jendet-suena, ohi den bezela. No-labait gai honekin loturik esan, 25 goizuetarrek parte hartu zutela abenduaren 28an burutu zen Herrera-rako martxan.

ARESO

Umeak eskolan bukatzearekin batera, Olentzeroa etorri

Abestiak kantatu ondoren hurrengo urtera arte esan zигun

JUANA MARI

Azken bi urtetan Olen-tzero etorri zaigu umeak eskola bukatzean. Festa bat antolatzen da bai ume eta bai gurasoeekin. Aurten Peña aldetik etorri zaigu Olentzero eta txakur ttiki bat ekartzen zuen ondoan. Pistatik behera heldu ze-nean, ume guztiak bera-rengana laisterka joan zi-ren. Etorri zen eskolara eta banatu zituen opari asko.

Txikienak negar egiten zuen hain hurbil ikustean. Abestiak kantatu ondoren, hurrengo urtera arte esan zigun.

Txerri hiltzea

Aurten hasi da txerri hilketa. Badago hemen ohitura bat: txerria hil, erre eta garbitu ondorenean, tripak garbitzerakoan etxeakoandreak anisa, uxuala eta gailetak eskain-tzen dizkie gizonei.



Olentzero joan zaigu, mendira lanera...

ARTXIBOA

Somatu al duzue zerbait?

1991 joan zen. Eta 92 urte "milagrosua" eta "hauta" hemen dago

JOSEBA I.

Baztan aldean, dena den, ez da itxaropenik 92akin.

Olinpiadetan ez dauka- gu parte hartzerik orain- goan. Sevillako Expo ho- rretan ez omen dute onar- tzen aretzeak, bildotsak, behi esnea, gaztanbera eta gasna saltzera gatea. Eta azkenik, V. Mendeurrene- ko ekitaldiari buruz ez dago txiste egiterik, nahiko kal- tea hartu zuten bere garaian.

Horrela bada 92ak, ba- dirudi Ameriketara baino Europara gehiago hurbil- tzen gaituela, bere esne kuotak, haragi inportazioa, kompetentzia eta abar luze hori ekarriz ondorio beza- la.

Etorkizun (...) honeri heldu beharrean gaude.

Problemak alde batera utzirik, bertze alderdia azalduko dugu. Besta haundiak, alaitasuna, opa- riak, eguraldi hotzari aurre egiteko epelaldiak... Olentzeroak ospatu ziren Elizondon, Arizkun, Zi- gan eta Iruritan. Kultur Ekitaldiak Iruritako gura- so elkarteak antolatutakoak



Pedro M. Esarte
Elizondoko herriak
egindako planta-
zio partikularren
kopuruaz galdetu
zuen Junta
Generalean

eta baita Baztandarren Bil- tzarrak. Urte zaharretan afari ugari. Urte berri egu- nean, berriz, haurren urte- txak. "Urte berri berri, ze karrazu berri, uraren gai- nean, bakea eta osasuna, urtetx urtetx urtetxa nahi dugu". Erregeak herri guzietan, batzutan kabal- gata ta guzi. Ohituren ar- tean, errege denboran zen- bait herritan gareakin es- kean ibiltzen dire. Hau dena San Antonen esperoan, ba- serrarren besta

Junta Generala

Gan den abenduaren 26an Elizondoko Balleko

Etxean egindako Junta Ge- neralean, aipatu ziren 50 puntu ezberdinen artetik batean, Baztango 15 he- rriek beren lurraldeetan ar- bolak sartzeko duten es- kubide historikoa gogora- tu eta aitortu egin zen. Junta Generalak, modu honeta- ra, animatu egin nahi die herrietako Batzarreei bide honetan lan egitera. Bert- zalde, horren finantziarioa Europako Komunitateak Nafarroako Gobernuaren bitartez emanen duen la- guntzekin egingen da segu- ruenik.

Zuhaitzaren Eguna

Aurtengoan, aspaldiko

partez, Balleko Etxeak Zuhaitzaren Eguna antola- tuko du Balleko ikastetxe guzien partaidetzarekin, eta Bagordi aldean sartuko di- tuzte arbolak.

Hautzaindegi berria

Udalak, zerbitzu kon- tratazioaren bitartez, Hautzaindegia antolatuko du bi urteko haurrentzat. Hautzaindegia Concep- cionisten ikastetxea zegoen egoitzan egokituko da eta momentuz bi maisu izanen dira kontratatatuak. Bertzal- de, plazak limitatuak ez badaude ere, momentuko kapazitatea bi maisuekin 30 haurrena izanen da ge- hienez. Eskaera haundia- goa izanen bada, maisu ge- hiago kontratatuko dira. Euskaraz edo erdaraz zain- duko dituzte umeak.

Ludoteka: denbora librea eta jokoak

Bi baztandarrek, aiuta- ri sozialak direnak, aur- kezitutako proiektua onar- tu egin du berriki udalak. Egoitza zentru parroki- lean egonen da, bi orduko zerbitzua eskeiniz.



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88. Tfnoa 580939
ELIZONDO

Merkealdiak

Tela eta Arropetan

ZUGARRAMURDI

Museko garaipena ospatuz afaria antolatu zuten gazteek

Neskak gona motzez eta mutilak zapelekin agertu ziren... gero gerokoak

KORO ETA MARGARI

Aipatu ginuen bezala, gazteak izan ziren museko irabazleak, eta hori ospatzeko afaria antolatu zuten. Baina afari hunek baldintza bat bete behar zuen: Neskak gona laburrez eta mutilak txapelaz jantziak gan behar zuten. Eta horrela izan zen, denak zintzo agertu ziren, batzuk beren izter ederrak luzitzen eta bertzeak gisa guztietako kapeluekin. Baina goizeko 5ak aldera gauzak pittat aldatu ziren: mutileri nesken gonak paratzea ilusioa egiten, neskeri mutilen izterrak ikustea ere bai... eta teatro polita ikusi zen, Frantxisko Marilyn Monroe bainan desiragarriago,



Dantzara ere animatu ziren gazteak, ongi afaldu ondoren

Mikel bere "gizontasuna" ezin gordez, Joxe bere hankaundiko ile luzeak erakusten, Xermanek bere gona ezin eskolatuz... benetan ikustekoa gure mutilen "tipazoak", bainan ez dute nahi izan argazkiak hemen jartzea, hala ba, ez

duzue haien ikusteko plazerrik izanen, eta bertze argazki "inoxente" hune-kin konformatu beharko.

□ **Denak** ezagutzen dugu Guantxeko parean dagoen "Mukurusta" iturria.

Orain antolatzen ari dira

eta itxura berri bat hartu du: Errota zaharretik eka-rritako harrizko arku eder bat jarri diote eta zola guztia ere harriz estali behar dute. Gure gusturako beti, aski polita gelditzen ari da.

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

ARROPA DENDA



CERVANTES HELVETIA SEGUROS



Era guztietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza



**Ezkontzetako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa**

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
**ORDU BATEZ
ERREBELATUAK**
ditugu



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

Gazteen urte zahar afaria Mikelenbordan

50 bat gazte elkarretaratuz



Zugarramurdi eta Urdazubiko haurrek bi antzerki egin zuten.



Etxean goxo goxo izan ziren bertzeak

ALIZIA OLAIZOLA

Mikelenbordan egin zuten gazteek urte zahar afaria, ezkondu batzuk Indiano Baitan, bertze batzuk Armuan eta bertzeek Mentan.

Arratseko meza entzun

ondotik, aperitifa hartu zuten gazteek Indianobaitan eta gero afaltzera gan ziren, guztira 50 bat gazte elkarretaratuz. Afaldu ondotik, biziki animatuak zirenean Armuarat joan ziren, giro ederra zelakoz akordiolariekin eta gero batzuk goizaldera Baztanen gosaldutik zuten, hasmenta ona emateko urte berriari.

Don Justino apezaren urtebetetzea

Don Justino Tabernak, Beranjaioa eta Urdazubiko apaiza denak abenduaren 30ean bete zituen 86 urte. Dagoeneko, 63 urte ditu Urdazubin apaiz dagoela. Zorionak!

Besta haundia eskolako haurrek

Abenduaren 20an, Zugarramurdi eta Urdazubiko eskoletako haurrek besta bat egin zuten Urdazubiko eskoletan, bi antzerki egin zuten. Dantzak eta gabon kantak izan ziren, baita Olentzero bat egin ere eta bukatzeko mago bat aritu zitzairen. Besta bukatzeko Eguberrietako saskia sortatu zuten.

FZ

FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak

Instalakuntza berriein, roiloen errebelatzea "ordu bat" baino gutiagoan egiteko aukera, «Fuji» kalitatearekin

Elizondo Tf: 58 04 91

Doneztebe Tf: 45 03 64

G.M.G.

GAMARGA S.A.

MARMOLAK, GRANITOAK, HAREARRIAK

121 errepide nazionala, Oharrizko bide-gurutzea
Tfnoa.: (948) 58 05 43 IRURITA

- ✓ Sukalde eta komunetarako entzimerak
- ✓ Etxe aintzinaldeak eta pieza ttikiak orohar
- ✓ Kanposantutarako lanak (Hillarriak...)

EZKONTZAK

Pio Elizalde eta **Sagrario Etxekolonea**, Zubietakoak, Abenduaren 21ean.

Jean Pierre Arribillaga eta **Marie Louise Arburua**, Sarakoak, Azaroaren 30ean.

Jean Marie Ibarburu eta **Marie Pierre Zapelena**, Sarakoak, Azaroaren 8an.

Jose Etxegarai Oiartzabal eta **Guadalupe Altuna Martinez**, Lesaka eta Irungoa, Abenduaren 21ean.

Carlos Viñas Berrocal eta **Teresa Balda Jauregi**, Barcelona eta Iruñekoa, Abenduaren 21ean.

Alfredo Lorenzo Zugarramurdi Zozaia eta **M^a Carmen Menta Etxeberria**, Doneztebe eta Donostikoa, Abenduaren 7an.

Patxi Saldias Iribarren eta **Marga**, Urrotz eta Iruñekoa, Abenduaren 28an.

Jesus M^a Andres de la Fuente eta **M^a Arantzazu Zapiain Loiarte**, Irun eta Berakoa, Azaroaren 30ean.

Jose Ramon Carnicero Santos eta **M^a Teresa Arbide Campos**, Donostiakoak, Azaroaren 30ean.

JAIOTZAK

Laura Goyenetché, Saran, Abenduaren 23an.

Joseba Braña Agerrebere, Elizondón, Abenduaren 18an.

Josune Berho Goñi, Oronotz-Mugairin, Abenduaren 21ean.

Itziar Etxeberria Oskariz, Lekarotzen, Abenduaren 20an.

Andoni Riopedre Huizi, Beran, Abenduaren 7an.

Jose Maria Etxabe Sanz, Beran, Abenduaren 7an.

HERIOTZAK

Jean Hiriart, Saran, 91 urte.

Pierre Fagoaga, Baratzartekoi (Sara), 66 urte.

Jeanne Marie Lavie, Saran, 66 urte.

M^a Josefa Sarobe Biela, Lesakan, Abenduaren 17an, 72 urte.

Juliana Arretxea Iriarte, Elizondón, Abenduaren 17an, 82 urte.

Fidela Barazabal Zugarramurdi, Arizkun, Abenduaren 19an, 80 urte.

Julian Urroz Matxiñena, Mugairin, Abenduaren 20an, 83 urte.

Nicasio Irigoien Inda, Erratzun, Abenduaren 20an, 76 urte.

Ivonne Fabry Pernet, Elizondón, Abenduaren 25ean, 93 urte.

Teresa Alonso Alvarez, Elizondón, Abenduaren 26an, 81 urte.

Carmen Lopez Cabodevilla, Elizondón, Abenduaren 28an, 83.

M^a Angeles Crespo Santo, Elizondón, Urtarrilaren 1ean, 81 urte.

Eustakio Goñi Telletxea, Oitzen, Abenduaren 17an, 66 urte.

Santiago Ibargarai Pescador, Narbarten, Abenduaren 27an, 71 urte.

Martxeli Lizaso Eneterreaga, Donezteben, Abenduaren 27an, 45 urte.

Teresa Apezetxea Lizaso, Donezteben, Abenduaren 27an, 20 urte.

M^a Eugenia Apezetxea Lizaso, Donezteben, Abenduaren 27an, 14 urte.

Francisca Elorga, Urdazubin, Abenduaren 15ean, 98 urte.

Eugenio Telletxea Telletxea, Beran, Urtarrilaren 2an, 72 urte.

Jose Ubriz Ibañez, Beran, Abenduaren 5ean, 63 urte.

Francisca Arandia Arribillaga, Beran, Abenduaren 16an, 68 urte.

Joaquin Igoa Moreno, Beran, Abenduaren 29an, 84 urte.

Baztan: turismo inizatibetan aitzindari

Udalak, 105 kanpalekuko Camping-a eta Hotela martxan jarri asmo ditu berehala eta berriki, "Baztan, ibilbide berdea" izeneko gida argitaratu du



Bilatzen den turismo mota kalitateko turismoa da eta beraz, ez-masifikatua

Prentsaurreko baten bitartez duela hogeit egun eman zen ezagutzera turismoaren fenomeno azkorraren aintzinean Baztango Udalak burutan dituen erizpide eta plangintzaren xehetasunak. Proiektuaren lehen pausuak emanak dira jada eta bertzeak bertze, Elizondoko Merkatuzelai izeneko alderdia camping munizipala egiteko erostea, hotela, minigolf-a eta tenis pistak egokitzeko bertan eta baita berriki arte Seminario Serafikoak zuen egoitza. Guzi hau, Industria eta Turismo kontzejalak den Pedro Uriz-en hitzetan, "Baztango ekonomia azkartzeko faktore garrantzitsua eta baliagarria da, kalitatezkoa, berdea, kultura eta urte osoko turismoa potentziaztearen ikuspegitik".

"Turismoa, Baztango bailara osoaren garapen ekonomikorako faktore garrantzitsua da" azpimarratu zuen laburpen modura Pedro Perez Uriz Industria eta Turismo gaietarako kontzejal baztandarrak. Turismo kontzejalaz gain, Baztango Alkatea F. Oiartzabal, Kultur Zinegotzia M. Garde eta tekniko bat Iñigo Doria egon ziren azalpenak ematen.

Afera honekin lotuta prestatu den udal-plangintzarekin "ia bertandagoen

eskariaren aintzinean eta oraindik gehiago gainera heldu zaiguna ikusita, Baztanaldeko azpiegituraren eskasiak zati batean bederen moldatu nahi dira" zioen Industria eta Turismo kontzejalak.

Mendialdeko turismoa

Duela guti itsasaldeko turismoa furi-furian zegoen gisara, orain badirudi barnekaldeko turismoa dela indartzen ari dena; agroturismo izenarekin ezagutzen dena. Turismo teknikoek

ONNOZ



"Baztan, ibilbide berdea" izeneko gidak, Baztanen zehar egin daitezken bortz ibilbide ezberdinen eskeintzen ditu.

diotenez, kalitate hobeago baten bila omen dabil ora-in turista, naturarekin harreman estuagoak gozatu nahirik; eta tekniko berauen erranetan, turista bera ere kalitatekoa omen da, kultoa eta maila onekoa. Guzi honetaz jabetuak omen dira baita Baztango Udal-arduradunak eta egoerari aintzina hartzeko ahaleginetan, momentuz behar bezalako azpiegiturarik ez dagoenez Baztanaldean, Udalak berak inizatiba hartzea erabaki du.

Camping-a eta hotela

Elizondoko Merkatuzelai izeneko parajeen 105 kanpaleku, erdiak karabamentzat, eta mini-golf-a, tenis pistak eta bertze kirol instalazioak ere izanen di-

tuen camping-erako 28.000m²ko zelaia erosi berri du Baztango Udalak. Honen proiektua eskatua du udalak eta 104 milioi inguru kostako omen da.

Bertzalde, orainarte Seminario Serafico-a zena ere erosteko modua aztertzen ari da udala bertan hotel-albergea egokitzeko. Nolanahi ere, hotel honen bideragarritasun estudioa ikusi arte ez omen da erabaki finkorik hartuko eta erostea erabakiko balitz, nork gestionatuko lukeen erabakitzea geldituko litzateke. Inbertitu beharrekoa, kasu honetan, 250 milioi izanen liratekeen.

Azkenik, argitaratu berri den "Baztan, ibilbide berdea" izeneko gida aurkeztu zen. Euskaraz eta gaztelera dagoen gida ho-

netan, Baztango lau kuartel historikoetan zehar (Baztangoiza -bi ibilbide-, Elizondo, Erbera eta Basaburuan) egin daitezken bortz ibilbide markaturen mapatxoa, ikus daitezken puntu interesgarrien azalpenak eta bazkalitzeko, lo egiteko eta erosketak egiteko komertzioen kokapen eta telefonoak eskeintzen dira, aurkezpen txukun batez emanak gainera.

Turismoa planifikatu behar

"Nolako turismoa nahi dugun definitu beharra dugu" zioen Perez Uriz kontzejal baztandarrak, bertzenaz "nolanahiko kalteak sor bait ditzake". Bertzalde, "behar bezala planifikatu eta antolatuz

gero, diru-iturri interesgarriak ekar ditzake; batez ere, komertzio, jatetxe eta zerbitzuentzat orohar". Dena den Perez Uriz zehatza da arras Baztanerako nahi duen turismoa definitzerakoan, "kultoa, sentsiblea eta maila batekoa". Baztan "anfitorioi" ona izan daiteke eta turista mota honek, "Baztanen aldeko eskaparate lan ezinobea egin dezake bizi den tokian".

Iñigo Doria teknikariak azaltzen duenez, "Baztan, ibilbide berdea" izeneko gidak, "bortz ibilbideetatik kanpo uzten ditu erre-serba natural gisa kontsideratzen diren Aritzakun, Kinto Real eta antzeko alderdiak, turismoaren gehiegikeriak zaindu beharreko alderdi hauek izorra

ez ditzan". Modu honetara, Doriaren hitzetan, "etor daitekeen turismoa bakarrik alderdi batzuetara kanalizatu nahi da".

Eskualde osorako probetxagarri

Patxi Oiartzabal alkateak, "gure esku dauden ahalegin guziak egingen ditugu gaizki dagoen eskualde honetan progreso bide berriak zabaltzeko eta ahaleaginean behar dena inbertitzeko" azpimarratu zuen.

Honekin batera, "Baztanen egingen den esfortzuaz Malerreka, Zugarramurdi-Urdazubi aldea eta orohar eskualde osoak aprobetxatzeko moduko plan-



"Bertiz, inizatiba turistiko guzien zentru koordinatzailea izateko gogoia" agertu zuten udal-ordezkariek

teamendu globala egin nahi dugu. Bide horretan, gu gara Bertizko planteat

menduan oinarrituta abiatzen garen lehenak" azpimarratu zuen bukatzeko

Baztango alkateak.

Testua: J.M. IRIGOIEN
Argazkiak: K. TOLOSA

BAZTAN IBILBIDE BERDEA

AREA 2.000-K EGINDAKO TURISMO ETA KULTURA PROMOZIORAKO
PROGRAMA BAT DA



Iñigo Doria

Kultur Eginbide eta Turismo Sustapenerako zerbitzua
ikerketak – instalazioak – aktibitateak – komunikazioa – formazioa

Informazioa


☎ 22 13 08

Nafarroako Herri Kirol Federazioaren egoitza inauguratu zen Donezteben

Azken bi urtetako balantzzea eta datorren urterako plangintza aurkeztu ziren



Pantaleon Errandonea arpanlaria arantzarrari omenaldia eskeini zitzaion



Prentsaurrekoan adierazitakoaren arabera, "gizarteko edozein sektoretako pertsonak, Herri kirola praktikatzeko oinarritzko finkatzea" izan da Federazioaren lehen helburua hiru urteotan.



Partaidetzan eta txapelketetan goraka egin da. Honela, 1989an 76 partaide izan ziren Federazioak antolatutako 3 ekintzetan. 1991an berriz, 18 aktibitate burutu ziren, bertan 971 partaidek parte hartu zutelarik




Aurtengo helburuei dagokienez, aktibitate plangintza zehaztu zen eta Nafarroa osoan informazio kanpaina jarraitzeko asmoa azaldu zen. Baita ere, kirolarien teknikazioaren beharra aipatu zen (sokatira entrentzaile ikastaroa egingen da) eta Nafarroako epai kolegioa ere sortuko da, txapelketen arautegia eta zigor koadroa egiteko.

Argazkiak: Joxemanuel Irigoien

Jaialdi bikaina burutu zen Labriten abenduaren 22an

Bi marka berri ere paratu ziren



Fco eta Jose Leiza lesakarrek marka berria ezarri zuten arpanan

Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatuta, jaialdi bikaina burutu zen abenduaren 22an Iruñeko Labrit pilotalekuan, bertan Nafarroako 5 txapelketa jokatu.

20 urtetik behitiko aizkolarien artean, Patxi Mindegia zubietarra gailendu zen, Juan Carlos bere anaiaren aintzinetik, Etxarri - Aranazeko Juan Jose Erdozia izan zelarik hirugarren.

Ingudean, Zubietako Jose Antonio Loiarde izan zen lehena, Iraizozko Fernando Olagüe azpitxapel-dun eta Xebe Goia eltzaburutarra hirugarren.

Harri jasotzean, Leitzako Narciso Saralegi izan zen txapel-dun, Leorburuko Federico Ariznazaleta bigarren eta Arantzako Patxi Bergara hirugarren.

Gurdian berri, Huarte - Arakileko Jaime Gorriti

garaile, Leitzako Pello Olano eta Berako Fermin Maritorenaren aintzinetik.

Emakumezkoen sokatiran, Berako neskak gailendu ziren.

Errekorrak errex gaintitu

Txapelketetaz aparte Nafarroa mailako errekor edo marka berriak ezarri ziren jaialdi honetan.

Alde batetik, Francisco eta Jose Leiza Lesakako arpanlariak kanaerdikoari 16 minutu eta 9 segundutan egin zizkieten 25 kor-teak, aurretik ezarritako marka errex gaintituz.

Bertzetik, Sunbillako Herri Kirol Taldeak, 17 minutu eta 24 segundutan paratu zuen Nafarroako errekor berria froga konbinatuari dagokionez.

Beraz, eskualdeko kirolariak maila polita erakutsi zuten Iruñean.



Ezkurra II. Memorialaren finalak jokatu ziren Donezteben

Abenduaren 22an, 6 mailetan

Abenduaren 22an burutu ziren Donezteben, Mendaur Esku-pilota eskolak antolatutako Jose-txo Ezkurra II. Memoria-laren finalak. Txapel-dunak, Arteta - Altzugarai baztandarrak (prebenjaminetan), Rementegi - Ibargarai baztandarrak (benjaminetan), Etxenike

- Garate baztandarrak (alebinetan), Atxa - Jauregi baztandarrak (infantiletan), Leitza - Apeztegia aurtiztarrak (jubeniletan) eta Ordoki - Mindegia Doneztebe eta Aurtizkoa (helduetan) izan ziren.

Sari banaketan, Antton Maiz eta Julian Retegi izan ziren bertan.

Hamabostaldiko jokaldiak



Jose Luis Larralde I. Memoriala.

Aurten lehen aldiz antolatu da Eguberri partean Lesakako Beti Gazte elkarteak jokalaria izan zenaren omenezko jubenilen arteko futbol torneo hau.



Narbarteko Herri Kirol Taldearen sub-20 mutilak.

Bi hilabetetako sanzioa ezarri dio Nafarroako Herri Kirol Federazioak, azken txapelketan trofeoa ez jasotzerakoan erakutsitako kiroltasun ezarengatik.

▼ Etxebizitzak

• **Lesakan**, lokalak alokatzen ditugu Erosle ondoan. 637404 Maldaerrea.

▼ Lana

• **Andre** bat behar da, Amaiurren bizitzeko, adineko andre bat zaintzeko. Informazio gehiago lortzeko, deitu telefono honetara: 58 10 21.

• **Urdazubiko** Koxka jatetxean neska bat behar da. Interesatuak deitu 599042 tfnora.

• **Haurrak** zaintzen edota etxeko lanetan egingo nuke lana goizez, ahalbada, Beran edo Lesakan. Haurrekin esperientzia badut. Deitu 637911 tfnora eguerditan (Edurne).

• **Neska** gazte baten beharra dago, Donostiako jatetxe baten lan egin dezan. Interesatuak deitu 631106 tfnora.

▼ Denetarik

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentzat, bertsolarentzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara

deitu. 631059.

• **Aluminiozko** zankoak non egiten diren baldin badakizu, tfno hauetara hotsegin: 510321 eta 610637.

• **Bortzirietako** IKako ikasleei: Joan den urtean "Hirugarren gizona" eta "Ipuin beltzak" liburuak berandu iritsi eta banatu gabe gelditu ziren. Deitu eta har dezakezue, 637796 tfnoan.

▼ Salerosketak

• **Saxofoi** bat salgai, soprano notakoa. Egoera eta prezio onean. 510216.

• **8 urtetako** zaldia salgai. 599211 Urdazubi.

• **Zaldiko bat** agertu da Etxalarren. Jabeak 635182 tfnora dei dezala.

• **Belarra** igotzeko Huracan izeneko tresna eta 650 litroko esne-tankeak salgai. Baita Ford Fiesta NA-L. Tfnoa: 504406.

• **Enzeragailu - dizdiragailu** salgai, "Tornado" marka, ia erabili gabea prezio onean. Tfa: 637879.

• **Tresillo** bat erosiko genuke. Norbaitek baldin badu, dei dezala 637796

telefonora.

• **Berako** Musika eskolak bigarren eskuko piano bat erosiko luke. Tfnoa: 631205 (4etatik 9etara).

• **Canon** markako tomabista eta proiektore sonoroa (Ref. 14 x L) salgai. Gutxi erabilia eta prezio onean. Tfnoa: 637879.

• **Eskuz** egindako koltxa, matrimonio oherako salgai. Tfnoa: 51 42 27.

• **Karrera** bizikleta eta mobileta salgai. Bakoitza 25.000 pztatan. Tfnoa: 637786 (Iñigo Etxepare).

▼ Harremanak

• **Ezkurrako** Ramon Cestau eta Eratsuneko Jaber Mariezkurrenari: Abenduaren 26 eta 27aren partez, zorionak eta horrela jarraitu. Ondo pasa eza zuela. Zuen lagunak A.U. eta B.L.

• **Elizondoko** Soria C-rentzat: Beti gustatu zaizkit zure begi berdeak eta zurekin egon nahiko nuke egunero. Zurekin oso gustora pasatu nuen igandean. N.B.ren partetik.

• **Leitzako** Mikel Ilarregiri: Zorionak zure urte-

betetzeagatik. Segi hain alai izaten. Leitzako zure ikasle bat. B. D.

• **Sunbillako** Txus: Zu zera nere begiek ikusi duten neska politena. Zu zera nere bihotzeko goxoki goxoa. Muxu bat zure ezpain goxoetan. Zuk dakizu nor naizen.

• **Jokin** eta **Noe**: Urte berri on bat opa dizuete bi neskek. L.A.O.S. (oso jatorrak zarete, jarrai horrela). Leitza.

• **Igantzik** Josetxo-rentzat: Zu zara munduko mutiko ederrena eta zure melena oso polita. Ni Berako neska bat naiz.

• **Elgorriagako** Andoni: zu zara nire "Torre Eiffel". Baina zu askoz politagoa zara. Ana.

• **Anizko F.M.**, Errenteriako Alaitz Irigorritaz maitemindu dela enteratu gara. Zorionak!

• **Doneztebeko** Jesus M. Arozenari: zu zara nere maitea. Oso exzitantea zara. Zure begiak asko gustatzen zaizkit, eta zure pendientea da "de lo que no hay". Muxuak. M^a Paz.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ETXEGARAI BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

HAURTZAINDEGIA

Gela egokitu batean haurrak zaintzeko
eskeintzen naiz. Nahi diren adinekoak,
bazkaririk ez, ordutegia solasteko.

Prezioak: Orduka edo hilabeteka

Galdetzeko: Maravillas Vaquero

Molinero blokea 6 - 4. D

Tfnoa: 630645 (9-12 eta 17-20etara) - BERA



Leitzeko ZINEMA

Hilbeltzaren 10ean, ostirala

10,30etan: "Pretty Woman" (komedia)

Hilbeltzaren 12an, igandea

4,30etan: "Mira quien habla tambien" (komedia)

7,30etan: "Pretty Woman" (kom.)

Hilbeltzaren 17an, ostirala

10,30etan: "Patfhynder" (El dia del desfiladero) (Akzioa)

Hilbeltzaren 18 eta 19an

4,30etan: "Tortugas Ninja" (Akzioa).

Hilbeltzaren 19an, igandea

7,30etan: "Patfhynder" (Akzioa)

Hilbeltzaren 31an, ostirala

10,30etan: "La escalera de Jacob" (Beldurrezkoa)

Otsailaren 2an, igandea

4,30etan: "Los gemelos golpean dos veces" (komedia) eta 7,30etan, "La escalera de Jacob" (beldurrezkoa).

Otsailaren 7an, ostirala

10,30etan: "Tacones lejanos" (kom.)

Otsailaren 9an, igandea

4,30etan: "Wilow" (Abenturak) eta 7,30etan "Tacones lejanos" (Kom.).

Otsailaren 14ean, ostirala

10,30etan: "El silencio de los corderos" (suspensea).

Otsailaren 16an, igandea

4,30etan: "El oso" (abenturak) eta 7,30etan "El silencio de los corderos".

Otsailaren 21ean, ostirala

10,30etan: "Gringo viejo" (drama).

Otsailaren 23an, igandea

4,30etan, "La ultima cruzada de Indiana Jones" eta 7,30etan "Gringo viejo"

Otsailaren 28an, ostirala

10,30: "El marido de la peluquera" (drama)

Martxoaren 1ean, igandea

4,30etan: "Poli de guarderia" (komedia) eta 7,30etan, "El marido de la peluquera".

Martxoaren 6an, ostirala

10,30etan: "Corazon salvaje" (akzioa)

Martxoaren 8an, igandea

4,30etan: "Regreso al futuro II" (z. fikzioa) eta 7,30etan "Corazon salvaje".

Martxoaren 13an, ostirala

10,30etan: "Thelma eta Louise" (akzioa).

Martxoaren 15ean, igandea

4,30etan: "Cenicienta" (marr. bizidunak) eta 7,30etan "Thelma eta Louise".

Martxoaren 20ean, ostirala

10,30etan: "Orquidea salvaje" (erotikoa).

Martxoaren 22an, igandea

4,30eta 7,30: "El robo de la joya" (kom.)

Martxoaren 27an, ostirala

10,30etan "El rey pasmado".

Martxoaren 29an, igandea

4,30etan "Robocop" eta 7,30etan, "El rey pasmado"..

AMAIUR

sukalde eta
bainu
altzariak

Rosa Seminario 13

Tfnoa.: (948) 45 04 00


DONEZTEBE

Vegasa[®]



ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako Iturria anaiak



ZURE BAINUA ALDATZEA
PENTSATZEN BADUZU ZATOZ
GUREGANA:

MOBLEAK, ISPILUAK, GRIFE-
RIAK, MANPARAK ETA BEHAR
DITUZUN OSAGARRI GUZIAK
DITUZU

Juan Arana, 3
Tfnoa: (943)

61 17 67

IRUN